

ELKARgo

Eman ezazu buelta bat zure herrian zehar. Erreparatu kaletik aurkitzen dituzun negozioetan. Laster ikusiko duzu gero eta denda gutxiago daudela. Denbora pasa ahala gero eta denda gutxiago daude. Bereziki belaunaldi gaztearengan influentzia handia duten frankizia handiek merkatuan negozio txikiei gero eta leku gehiago kentzen ari diete. ELKARgo-tik denda txiki hauen egoerari bultzakada bat ematea nahi dugula erabaki dugu. Zelakoak izango lirateke herri eta hiri guzti hauek, denda hauek ematen dizkieten giro bero eta bizia egongo ez balego?

Aipatutako PYME motatako enpresa hauek arazo mordo bati aurre egin behar diete, baina horien batzuk hurrengoak dira:

Hasteko, negozio txiki hauek finantzaketa arazo ugari izaten ohi dute. Izan ere, normalean kanpotik bilatzen dute finantzaketa hau eta enpresa handiekin alderatuta finantza erraminta gutxietara sabidea dute.

Publiko zabal batera heltzeko eta hauen konfidantza lortzeko zailtasunak dituzte. Diru iturri estuagoak dituztenez ezin dituzte marketing eta publizitate kanpaina landuak lortu.

Arrazoi berdinarengandik COVID pandemiaren garaitik nabarmendu den arazo bateri aurre egin behar izan diete: multinazionalak erabiltzen duten online salmententzako portal digitalak.

Ezin dute punta-puntako teknologia lortu. Honek eragiten du beste enpresa handiekiko desabantailan egotea. obsolescencia

Momentuan bizi dugun krisian eta bere izaera iraunkorragatik, zaila egiten zaie merkatuan sostengatzea.

Haien produktuen prezioak altuagoak dira, ezin baitute haien produktuak beraiek ekoitzi, eskalako ekonomiari ezin baitiote probetzurik atera eta haien kostuak normalean altuagoak baitira.

Prestakuntza altuko langileak aurkitzeko zailtasunak (hauek normalean enpresa handietara joaten dira, soldata altuagoak eskaintzen baitituzte)

Gure enpresaren bitartez, tokiko negozioek ikusgarritasun handiagoa izango dute. Hori dela eta, publiko zabalago batengana iritsiko dira eta ekonomikoki berpizteko eta hedatzeko aukera gehiago izango dituzte. Gure zerbitzua kontratatzean gure mapan agertuko dira (horrela herri horretako jendea edo bisitan doan jendea hurbil dituen dendak ikusi ahal ditu) eta haien ezaugarriak, promozioak, produktuak, erreseinak, etb agertuko dira.

Bezeroak sustatzeko puntu-sistema bat ezarriko da. Horren bitartez, aplikazioan erregistratzen bazara, aipatutako negozioetan erosketak egiten badituzu eta erosketa zure erabiltzaile-izenean erregistratzen baduzu, beherapenak, promozioak eta artikulu eskusiboak lortzeko puntuak irabaziko dituzu. Horrela negozio hauetan kontsumitzera sustatuko dugu jendea.

Horrez gain enpresen artean elkarlaguntza sustatuko dugu eta hainbat negozio aintzat hartzen dituen proiektuak aurrera eramango ditugu (oulet-ak, etb).

Badakizu, irten zaitez kalera eta disfrutatu itzazu izkin guztietan ezkutatuak dauden dendatxo zoragarriak. ELKAR lagunduz sortu dezagun ELKARgo, herrietako giro bizia galdu ez dadin.